

## **HENDAIAKO SAN BIXENTE ESKOLAKO BURASOEI ZUZENDU HITZARMENA**

Usaia onak urte hastapenean hartu behar ditugu, denek.

Gure herrialdeak segurtasun alorreko arazoak baditu eta Hezkuntza Ministerioak aginduak eman ditu. Gure eskualdea zaintza zorrotzeko egoeran da.

Hona beraz hitzarmen bat, «elkarrekin ongi bizitzen» laguntzeko.

### **SEGURTASUNARI BURUZKO PUNTUAK SARTZEAK - ATERATZEAK - ZIRKULAZIOA**

Autorik ez *Des évadés* karrikan.

Xeilak hetsiak izanen dira (*Loti* eta *Libération*), 8:35ean eta 13:35ean. Xeilak 13:15ean irekiko dira, etxean bazkaltzen duten haurrentzat.

*Loti* gunean, beren haurrak hartzen duten burasoak ez dira gehiago korrale ttipian aparkatuko, 16h15etik goiti.

Familiei galdegiten zaie eskoletako ateen aitzinean ez luzatzea.

CE2-CM1-CM2 geletako haurrek bakarrik ateratzeko baimena ukaiten ahalko dute, baimena izenpetua baldin bada.

Horrek ondorioak baditu: ikasle bat berantean baldin bada – jantegian izena ematea ez zaio gehiago posible.

Medikuarekiko hitzorduak eskola tenoreetatik kanpo hartu behar dira – ez baldin bada posible, zure haurrak egun erdia huts egingen du.

Hitzarmeneko beste puntu batzuk, segurtasunari ez lotuak

**HUTS EGITEAK:** huts egite oro seinalatu behar da, telefonoz edo mezu elektronikoz – mediku agiri bidez justifikaturik, lehen mailakoen kasuan, 48 orenetik goiti – haurra itzultzen denean hitz idatzia ekarri behar du.

**SENDAGAILUAK:** helduek ez dute sendagailurik ematen ahal, salbu familiak izenpetu *PAI* proiektu bat baldin bada.

**GORPUTZ ETA KIROL HEZIKETA - IGERILEKUA - SURFA:** nahitaezko gaiak dira. Jarduera horietara ez joateko baimen guziak mediku agiri bidez justifikatuko dira.

**ASKARIA:** *Libération* gunean, goizetan posible da (neurria atxikiz – fruituak-konpota-esnekia).

*Loti* gunean, askaririk ez (burasoei bilkuran esplikatuko zaie).

**JOSTALDIA:** korralea haurren jostalekua da. Baimenduak diren tresna bakarrak belakizko edo plastikozko baloiak (larruzkoak debekatuak dira), jauzi sokak eta elastikoak dira.

Kartak (pokemon edo beste), lehen mailakoentzat, *zentsuzko kopuruan* izanen dira – Ekarriko den materiala irakasle batek ontzat emanen du.

**HITZORDUAK:** irakasleekin hitzordua hartzeko, lotura kaiera erabiltzen da.

Hona erabil daitezkeen kontaktuak: idazkaritza 05 59 48 89 00 [secretariat@stvincent.eus](mailto:secretariat@stvincent.eus)

GAUNET anderearen sakelako telefonoa 06 63 57 97 38 / 05 59 48 89 04  
[direction.ecole@stvincent.eus](mailto:direction.ecole@stvincent.eus)

Sinadura - eguna